


ORTZADARRA

Gorria, laranja ta horia,
oi margo pollitak!
Ferdea, urdiña ta ubela,
horra ortzadarra.

Haurrak altxatzen du burua,
hau xoramendua!
Euri ta iduzki dantzari
zeruan alaiki.



HELBURUAK

AKTIBITATEAK	ERABIL ETA LAN DAITEZKEEN JAKINTASUNAK	ERABIL ETA LAN DAITEZKEEN ZEHAR JAKINTASUNAK
IRUDITU, SENDITU, SORTU. Doinuaren zuzentasuna eta neurri hirukoitza landu.	◆ Oroimena erabili egoera ezagunetan oinarrituz. ◆ Besteekin parte hartu gorputz adierazpen ihardueretan eta jokoetan, arau soil batzuen arabera, horien balioa onarturik. ◆ Musika talde-ihardueretan parte hartu. ◆ Botzarekin jostatu eta haren ahalak ikertu. ◆ Bere burua espazioan eta denboran kokatu joko kantatu eta dantzatuen bidez.	◆ Jokamoldea talde egoerari egokitu ; parte hartu ; besteekin harremanetan jarri ; besteari behatu, bestea onartu eta errespetatu. ◆ Elgarrekilako bizitzaren arauak ulertu eta onartu, gogokoak ez direnak barne. ◆ Estetikaren sendikortasuna ukan eta bere gustuak adierazi, beste obretan ere.
MINTZATZEN IKASI, IDAZMENARI OHARTU. Ortzadarren koloreak ikasi. + ikus hizkuntza helburuak hurrengo orrialdean.	◆ Hitza hartu eta molde ulergarrian bere burua adierazi. ◆ Testu laburrak (olerkiak,...) erran eta gogoan atxiki. ◆ Gauza, egintza eta sendimenduak izendatu eguneroko egoeretan. ◆ Hiztegi zehatza gogoan atxiki eta doakion kontestuan erabili. ◆ Gramatika arau batzuei ohartu (pluralaren marka,...). ◆ Ikasi hiztegia beste egoera batzuetan baliatu.	◆ Oroimena erabili egoera ezagunetan oinarrituz. ◆ Ixtorioen, kantuen, olerkien... eta beste segiden gogoan atxikitzen trebatu. ◆ Berdintasunak eta ezberdintasunak bereizi (itxurak/formak, koloreak, izariak, soinuak,...). ◆ Agindu/manu bat ulertu eta bete.
ELGARREKIN BIZI.	◆ Elgarrekin bizitzeko arauak onartu.	

USTIAPENA (egin moldea)

- Hurrei ortzadarraren koloreak dituzten oihal zati batzuk banatzen zaizkie.
- Kantua eman arau, kolore egokiak altxatzen dituzte eta bertzeak apaltzen.

Oharra : musika biziki laster baitoa, hobe da joko hau kantuz egitea (diskoaren erritmoari jarraiki orde).

- Haurrak xutik daude. Ortzadarra dantzarazten dute oihalak elgarri atxikiz.
- Hurrek kolore ezberdinetako xingolak eskuratzen dituzte (sei baino gehiago). Ortzadarraren koloreak hautatu behar dituzte.
- Jokoa : hurrei kolore ezberdinetako kartak edo xingolak emaiten zaizkie (sei baino gehiago). Haurrak, aldizka, ortzadarraren etxera joaiten dira. Atea jo eta, haurrak erraiten du zein koloretakoa den eta sar daitekeenetz galdegiten. Adibidez, “Ni gorria naiz, sar naiteke ?” Eta ortzadarrak haurra bere kolorearen arabera onartzen du ala ez : “Bai, ongi etorri !” edo “Ez, zaude kanpoan !”.

HIZKUNTZA HELBURUAK :

1. Jokoa. Ni gorria naiz...

Joskera: Ni gorria naiz, sar naiteke?

Lexikoa: Bai, ongi etorri!
Ez, zaude kanpoan!

☺ Margo ezazu ortzadarraren marrazkia.

Osatzeko ikus :

→ *Altxorraren gordagia* ipuina (liburuxka eta kaseta). Kanboko ama eskola publikoa. IKAS.

→ *Axeriaren ezteiak*. P. Duny-Petre. Xirula mirula. Eusko Press.

